ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2016ko irailaren 23a, ostirala • 107 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

**2016ko ekitaldiko zergak eta tasak kobratzea**

Susana Díaz de Arcaya Cubillok, Iruraiz-Gaunako Udaleko alkateak,

Jakinarazten du: 2016ko urriaren 4tik aurrera ordaindu ahal izango direla borondatezko epean zerga hauen 2016ko ordainagiriak:

— Landa eta hiri ondasun higiezinen gaineko zerga.

— Zaborra biltzeko zerbitzuarengatik ordaindu beharreko tasa.

— Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2016ko urriaren 4tik abenduaren 5era.

B) Betearazte aldia: 2016ko abenduaren 7tik aurrera, ordaindu ez diren kuotetarako premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiko da, eta kasuan kasuko errekargua aplikatuko da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, Arabako zergenean, jasoriko epeetan.

Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udala arduratuko da ordainagiriak kobratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek Kutxabankek Dulantzin daukan bulegoan (Dulantzi kalea, 11) egingo dute ordainketa borondatezko epean (urriaren 4tik abenduaren 5era), bulego orduetan.

Gomendioak

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Iruraiz-Gaunako Udalari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Azilu, 2016ko irailaren 13a

*Alkatea*
*SUSANA DÍAZ DE ARCAYA CUBILLO*



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.09.23 05:41:49 Z